

Uztarria

|||Azpeitiko herri aldizkaria |||2013ko abendua|||156. zenbakia |||



KRISIA? BAI HORIXE

2007an 327 ziren, 2013 bukaeran 1.171.
Langabezian dauden hainbat herritarren
bizipenak jaso ditu Uztarriak 20



**BADAKIZU ZERGATIK AZTERTZEN
DUDAN NIRE ENTZUMENA GAES-en?**

"Egunen batean dena errepika
diezadatela saihestu nahi dudalako"

* Eskaintza baliozkoa 2013/12/31 arte.



www.gaes.es



2013ko udazkeneko promozioa

Gozatu ezazu zure etxean Miele batek bakarrik eskaini dezakeenaz: exigentzia handienari erantzungo dioten emaitzak, fidagarritasun paregabea eta iraunkortasun bermatua.

Aurkitu perfekzioa **prezio erabat sinestezinean.**

Erabilera
anitzeko labea

629€

Garbigailua

799€

Bero-bonba
bidezko lehorgailua

999€

Ontzi-garbigailua

599€

Gipuzkoako Miele Banatzaile Ofiziala:

**MILAR
LARRAMENDI**

Julio Urkijo, 16
20720 Azkoitia-Gipuzkoa
Tel.: 943 851 897

Made in
Germany

Miele

IMMER BESSER

*2013/10/01etik 2013/12/15era (biak barne) gomendatutako prezioa.
RAEE kostua barne. Zergak barne. Beste eskaintzekin bateraezineko prezioa.

AINHOA ETA OIHANA GOENAGA

igerilariak

“ASKO sufritu beharreko kirola da”

Hainbat domina eskuratu dituzte Goenaga ahizpek igerian. Etxean eta entrenamentuan, “ia beti batera” egoten dira. 📝📍 Xabier Otamendi

Castello de la Planako igeriketa txapelketatik iritsi berritan izan dira Uztarrarian bi ahizpak. “Uste baino hobeto” aritu direla diote, beraz, “gustora” daude. Oarsoaldeko taldearekin aritzen dira lehiaketetan, eta garbi daukate Azpeitian igerirako afizio gutxi dagoela.

Zer moduz Castello de la Planan?

Ainhoa: Gustora. Gure denborak jaitea lortu dugu. Prestatu garenerako, oso-oso gustora. Nik behintzat, ez nuen espero hain ondo egitea.

Oihana: Txapelketa hau, berez, ez dugu prestatu, hasiera baita. Besterik gabekoa izan da. Ez gara entrenatu hau ondo egiteko. **Asko bidaiatzen al duzue?**

O: Espainian zehar, behintzat bai. Turismoa egiteko ez dugu denbora askorik izaten, ordea.

A: Normalean txapelketa amaitu eta hurrengo egunean itzultzen gara. Beraz, azkenengo gau horretan zerbait ikustera ateratzen gara ahal badugu, baina ez dugu ezer ikusten.

Ze modalitatetan aritzen zarete?

A: Ni ondoena bizkarrez moldatzen naiz. Crawl (estilo libre bezala ere ezaguna) eta beste modalitateetan... ez naiz oso gustora sentitzen neure buruarekin [kar kar kar]. Hau, berriz, ona denetan da [ahizpari begiratuta]

O: Ez [burua mugituz]. Nik ondoena Crawl egiten dut. Aurreko denboraldian, ordea, bizkarrez

||| **DATUAK** |||||

AINHOA

||| **Jaio.** 1997ko maiatzaren 22an.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizi tokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.** Batxilereko ikaslea.

OIHANA

||| **Jaio.** 1999ko martxoaren 5a.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizi tokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.** DBHko ikaslea.

ondo ibili nintzen, baina berez, Crawl modalitatea da nirea.

Bion artean lehiarik izaten al duzue?

O: Estilo bera egiten ez dugunez... Bera berera joaten da eta ni neurera. Ez diogu garrantziarik ematen.

A: Batzutan tokatzen zaigu gauza bera egitea, baina gutxitan. Jendeak hala jarduten digu, eta horrek ematen digu amorru gehie-

na. Blok konparatzen gaituzte, “hemen zein da hobe edo zein da txarragoa?”, esaten dute. Baina ez da horrela. Bera, bera da, eta ni, ni naiz. Oso ondo konpontzen gara. Eskola orduak kenduta, ia beti batera egoten gara.

Egiten al duzue beste kirolik?

A: Lehen saskibaloia egiten genuen, baina dena ezin da. Asteazkenetan saskibaloiko entrenamendutik atera eta zuzenean igeritara joaten nintzen. Lau ordu segidan kirola egiten aritzen nintzen, eta gogorra izaten zen...

O: Ahal genuen bitartean aritu ginen. Baina igeriak denbora asko eskatzen du.

Aukeratu beharra izan zenu- ten, beraz.



Oihana ezkerrean eta Ainhoa eskuinean, Castello de la Planatik iritsi berritan.

O: Bai. Nik duela bi urte, igeria utzi nuen, saskibaloian segitzeko. Azkenean, ordea, igerira itzultzea erabaki nuen.

A: Sakibaloiko taldean koadrilako denekin ibiltzen nintzen. Igerian, berriz, nire adineko bakarria izanda, giroagatik bakarrik gehiago tiratzen zidan saskibaloiak; nahiz eta hobeia izan igerilekuan. Azkenean, ordea, igerian segitzea erabaki nuen, gainera, talde berrian nire adineko gehiago daude, beraz, oso ondo.

Afizio handia al dauka zuen familiak?

O: Ez [kar kar]. Amak txikitatik igerelikura eraman izan gaitu. Berri gustatu egiten zaio igeri egitea, eta apuntatu egin gintuen.

A: Berak dio, tripan geundenean igeri egitera joaten zela, eta horregatik atera garena igerilariak.

Eta Azpeitian? Ba al da afiziorik?

A: Ez, bat ere ez.

O: Ume askok ematen dute izena, baina gero denak saskibaloira edo futbolera pasatzen dira.

A: Bidasoa inguruan, adibidez, ez da hori gertatzen.

Orain Oarsoaldeko igeri taldean zaudete.

A: Bai, haiekin hartzen dugu parte txapelketetan. Duela pare bat denboraldi aldatu ginen. Astean zehar hemen entrenatzen gara, eta larunbatetan, berriz, Oiartzunen.

Zenbat entrenamentu egiten dituzte astean?

O: Astean sei. Igandeetan kenduta egunero. Bi ordu, bi ordu eta erdi... Gimnasia joaten baldin bagara, hiru ordu eta erdi.

A: Hala ere, beste zenbaitzuekin konparatuta, oso gutxi entrenatzen dugu. Kanpoan, gure adinekoek edo gazteagoek, egunean gure bikoitza edo gehiago entrenatzen dute.

Igeria eta festa tartekatze-ko nola moldatzen zarete?

A: Nik primeran [kar kar]. Denerako denbora daukat. Abuztuan, absolutuetan parte hartu genuen. Baina absolutua opari bat bezala da. Kosta egiten da bai, baina, disfrutatzeko txapelketa bat da, ez presiopean sufritzekoa. Orduan, saninazioetan normal-normal ateratzen. Astebukaera-

tan ere berdin-berdin ibiltzen naiz.

O: Astebete beranduago txapelketaren bat badaukagu, xuabe ibiltzen gara. Bestela normal.

Orain arte aritu zaretenetik, ze txapelketa nabarmenduko zenukete?

A: Palman izan genuen txapelketaren oroitzapen polita daukat. Aurreko denboraldian izan zen, 200 metro bizkarrezko lehian. Goizean ez nintzen oso ondo aritu, eta ez nuen oso gustora egin igerian. Arratsalderako, B finalean sartu nintzen. Eguerdian hemengo entrenatzailearekin (Omar Urbietak) hitz egin nuen telefonotik; lehiaketara Oarsoaldekoarekin joaten baikara. Guztia

“Horrek ematen digu amorru gehiena; biok konparatzeak”

AINHOA GOENAGA
igerilaria

azaldu nion eta horren inguruan hitz egin genuen. Arratsaldean, goizekoarekin alderatuta, lau segundoa hobetu nuen denbora. Izugarriko aldea izan zen. Lehenengo aldiz disfrutatu nuen ige-

“duela bi urte, igeria utzi nuen saskibaloian segitzeko”

OIHANA GOENAGA
igerilaria

rian hainbeste. Ez nuen dominarik eta ezer lortu, baina lepo gozatu nuen.

O: Espainiako txapelketan lehenengo aldiz domina ateratu nuenekoa esango nuke. Ezer espero gabe joan nintzen; izan ere, nere nahia denbora ona egitea zen. Palman izan zen; duela bi urte. Bigarren txapelketa izan nuen; beraz, aurreko urteko denbora hobetzea nuen helburu. Azkenengoetakoa nengoen 200 metro libreko zerrendetan. Ez nuen ezer espero, baina, asko hobetu nuen denbora eta domina lortu nuen.

Etorkizunera begira, ze asmo daukazu?

O: Igerian segitzea nire onena ematera iristeko. Batzuk, ordea, ikasketak alboratzen dituzte igeriagatik. Baina hor ez daukazu ezer. Nik ez dut hori nahi, gainera, ia inor ez da bizi igeritik.

A: Nik ez daukat arrastorik ere. Ez dut helbururik finkatuta. Izan ere, zerbait nahi duenak asko entrenatu behar du. Nik nahi dudana segitzea da, baina ez sufritzen. Jendea entrenatzen eta sufritzen egoten baita. Hori ez dut nahi. Neure buruari asko exijitzen diot, gainera, eta ez zait gustatzen gauzak gaizki ateratzea; hala bada, asko sufritzen dut. Igeria, asko sufritu behar den kirola da, azken finean, baina sufrimendu horrekin disfrutatzen ikasi behar duzu. ✘

Amets hausniak?

U

riaren 26a, lotailu gurutzatua hautsita. Beste atzerapauso bat. Une horretan sentitzen dena, deskribaezina, azken batean norbere sentimenduak norbere esperientzien ondorio baitira.

Pertsonon bizitza mugitzen duen motorra ametsak direla esan daiteke. Bizitzaren norabidea, zentzua, amets horiek lortzeko jarritako espektatiben eta horiek gauzatzeko eginiko esfortzuaren eta lanaren araberakoa da. Baina bereziki, gure esku ez dauden faktoreek ametsak ez gauzatea eragiten dutenean, frustrazio horren aurrean amets berriak sortzea edo lehengo espektatibak egoera berrira egokitzeak zentzu berri bat ematen dio bizitzari.

Bizitzarekiko perspektiba aldatzen ari zait, azken finean ez ederra, polita edo perfektua ez delako, bere esentzia etengabe aurrera egiteko jartzen dizkigun trabak gainditzea dela ulertu dudalako baizik. Eta honakoa ulertzera iritsi naiz; ez dago inor bizitzak zigortu ez duenik. Norbere ametsak ez badira, familiarako, lagun edo gertukoena lehertzen ditu.

Ulertzera iritsi naiz, era berean, norbere sufrimendua, nahiz eta intentsitate handienarekin bizi izaten den, fatalismoetatik apartatu eta erlatibizatzen ikasi behar dela. Ez gara munduaren erdigune, gure bizitzarena baizik. Beti izan daiteke gertatutakoa baino zerbait okerrago, beti. Barrutik eraman behar diren une latzak alboratu eta egoera berrira moldatzeko jarrera positiboa, enpatikoa, ezinbestekoa da. Ez dago besterik, hori da errealitatea, erori eta altxatu, edo kontrola galdu.

Bizitza ederra dela esaten da, zoriontsu izatea dela bilatu behar dena, eta egia da, baina nola izaten da bat zoriontsu lortu nahi duguna lortzea hain zaila dela dakigunean? Batzuek txikitatik ikasiko dute bizitzaren gordintasuna, besteek gaztetan, besteek zahartzaroan eta beste batzuk beren buruari begira pasatuko dute bizitza, atzera begira eta zergatik niri galdezka, ingurukoaren arazoak gutxietsi eta eurak munduaren ardatza direla sentituz.




|||||||hodei mendinueta|||

||| Bizitzaren esentzia etengabe aurrera egiteko jartzen dizkigun trabak gainditzea dela ulertu dut

Baina horrelakoa da bizitza, ezer gutxi kontrolatzen dugu, ausak portzentaia handi baten baldintzatzen baitu gure ibilbidea. Gure buruan zer nahi dugun argi izan arren, kontrola ditzakegun faktore gutxietan gogorlan egin arren, nahi duguna lortzea ia ezinezkoa da, eta eginahalak egin, eta ahal den guztia ematen dugunean lortzen dugun hortan zoriontasuna bilatzea beste erremediorik ez zaigu gelditzen, nahiz eta ametsa gauzatzeko erdibidean gelditu.

Bestalde, ez dut ahaztu nahi babesaren garrantzia, etxea, lagunak, familia, ezagun zein ezezagunak. Oso zaila izanagatik, une zailtan zulo beltzean argia ikusten laguntzen duen berotasuna da, izan hitz soilak, besarkadak, animoak edo hizketaldi luzeak. Eskertu ezin den laguntza, maitatua sentitzea, zoriontasun iturri agortezina.

Lana. Esfortzua. Jarrera. Maitasuna. Zoriona.... Bizitza mina zelai bat da. Aurrera egin behar da, pausoa akats bat, eta atzera bueltarik gabeko egoera. Arriskatu edo bestaldera begiratu, bi ate. Baina gure ametsen alde arriskatu gabe, ahal den guztia eman gabe, merezi du?*



**ORDENAGAILUEN SALMENTA
MOTA GUZTIETAKO ORDENAGAILUEN KONPONKETAK**



**GEURE HIZKUNTZAN LAN EGITEKO,
NEURRIRA EGINDAKO
EUSKARAZKO PROGRAMAK DITUGU
(Autonomo, enpresa txiki, denda,
taberna, jatetxe, akademientzat...)**

Iberotarren plaza 8, behea 20730 Azpeitia Tel.943 81 51 51

www.softekin.com

“Il Partigiano” azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egindako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.

ildefonso gurrutxaga kalea, 12 behea

**Telefonoa
943 08 06 13**

ETXERA ERAMANGO DIZUGU



Mundu urdina

U

rdina, zerua eta itsasoaren kolorea, gorputza eta buruarentzat osungarria den kolorea da, lasaitasuna, samurtasuna... adierazten baitu. Kolore urdina irribarrearekin lotu dut, irribarre batek hainbait gaitz sendatzen dituelako. Horregatik, mundu urdina pertsona urdinek osatzen dute eta horiek ez dituzte esaldiak oparitzen, ez, irribarre zoragarriak baizik!

Askotan gustatzen zait, berdin zait pertsona urdin ezagunak edo ezezagunak oparitzen didan, baina nigan eragiten duen sententzia... izugarria da! Gero eta garbiago daukat nire inguruan pertsona urdinak nahi ditudala, irribarre batekin dena errazagoa egiten baitzait!

Askotan ohartzen naiz ordea presaka bizi naizela, kalean erdi korrika joaten naizela. Lanpetuta, nekatuta, buruan gauza gehiegi... irribarrerik gabe.

Azaroko egun batean, Laboral aurreko zebra-bidetik pasatzean, ia kotxe batek aurretik eraman ninduen, orduan ere presaka nindonez, korrika pasatu nintzen zebrabidetik. Egundua nahiko txarra pasatu nuen, lo gutxi, lanean lanpetuta, etxean ere bai... baina han zegoen pertsona urdin batek izugarriko irribarre bat oparitu zidan! Bapatean, irribarre hark energiaz bete ninduen eta etxerako bide guztia irribarre txikia ahoan nuela egin nuen! Ez nion ezertxo ere esan, irribarre batekin erantzun nion soilik, momentu hartan eskerrik asko esateko iruditu zitzaidan modu bakarra! Eskerrik asko benetan!

Urrian aldiz, Logroño, Laurel kale ospetsuan, izugarriko momentu zoragarria bizi izan nuen. Konpainia ezin hobean, pare bat ardo edanda... irribarreari buruzko sekula irakurri dudana testurik hunkigarriena irakurri nuen.

Irribarre

Honela zioen idatziak:

–Irribarre ematen duena zoriontsua da eta jasotzen duenak eskertu egiten du.



|||||||nagore illarramendi|||

|||Irribarre bat oparitzea ahazten bazait, barkatu benetan. Zuk oparituko al didazu zurea?

–Irribarreak, momentu txiki bat irauten du baina bere oroitzapena, askotan, bizitza oso-rako izaten da.

–Ez dago inor hain aberatsa, irribarre behar ez duenik eta inor hain behartsua eman ezin duenik.

–Ezin daiteke erosi ezta ere utzi edo lapurtu, opari bat da.

–Irribarreak zoriontasuna ekartzen du.

–Nekatuta dagoenarentzat deskantsua, ilusiorik gabe dagoenarentzat aldiz, argia.

–Triste dagoenarentzat eguzkia eta arazo askoren irtenbidea.

–Irribarre egiten ahaztu zaionak behar du gehien.

–Irribarre egin ezazu, berau baita egin eta jaso dezakegun oparirik ederrena.

Presarengatik, edo txikiakin zoro moduan nabilen batean, irribarre bat oparitzea ahazten bazait, barkatu benetan. Zuk oparituko al didazu zurea?

Inoiz ez ahaztu, irribarre dela bizitzeko dugun gure izaeraren ezaugarriarik zoragarriena!★





GEURERA ITZULI

Bertako eta garaiko produktuen kontsumoa berreskuratzeko garaia da, modu jasangarrian ekoiztutako elikagaiak. Guztioi mesede egiten digun kontsumitzaile eta ekoizlearen arteko harreman zuzena. **Gure herriaren sustraiak.**

www.bertakoaetagaraikoa.net

 **Gipuzkoa**
BERRIA



Miriam Arrizabalaga
Doniene Berri
baserria
Fruta eta barazki
ekologikoak banatzen
ditu Eibar eta Debako
kontsumo taldeetan.


HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Oharrak euskaraz.

Euskararen normalizazioa lortzeko bidean urratsa eman du saltzaile honek. Gustua ematen du hormetan eta erakusleihoetan euskarazko kartelak ikusteak. **Uztarria**

**BEHERA.** Euskararentzat lan-eskaintzarik ez.

Saltoki honetan langilea behar dute, baina euskarak ez du lekurik merkatarientzat. Lan-eskaintza hau euskarara itzultzea ez da ba halako lan handia, ezta? **Uztarria***



Kepa Peñagarikano.

ESANA DAGO

“Anatomiaz eta gaixotasunez ikastea beti gustatu izan zait”

KEPA PEÑAGARIKANO
anbulantzieta
langilea eta pilotaria

“Umetatik maite izan dut irratia; ikastera joan nintzenean ere beti izan nuen ondoan”

“Konplizitateak eusteko gure ofizioan asko balio du isilik egoteak; ni isilik egitekoa naiz”

IÑAKI ELORZA
irradi esataria

“Kantuan zein pilotan, baina ni beti frontoi barruan”

XABIER SALDIAS
Egan-eko abeslaria

Aiertza Autoak
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net

“KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK”

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Prebarikazio mentala

Ni neu ez naizenean ez naiz batere eroso sentitzen. Arrazoi duzu, hori horrela bada, eta bada, nire bizitza deserosoa da. Eta jakin badakit, datozen egun eta asteetan, gazitik gozotik baino gehiago izango dudala. Bai, asmatu duzu, ez zen zaila, gabonak datoz, pasata baleude, askoz hobea.

Egunerokotasuneko loturek aske sentiarazten naute. Ohiko eta betiko betekizunak makulutzat hartuta, egunez eguneko urratsekin sendo eta tinko egiten dut aurrera bizitzea tokatu zaidan bizitza honetan. Baina estropuz egiteko sasoa iritsi da. Gabonak. Estre-

sa, presak, itomena... la hilabete osoz arima mozorrotu eta prebarikatzaile mental izan beharrek, dagoeneko neure onetik ateratzen nau. Kontsumismo basatiaren hilabetea indarrean da. Eromen zoroa poltsiko hutsek mugatuko badute ere, denok, edo ia denok, polea egiteaz gain gehigikerien karrera irabazteko prest gaude. Belengo aterpean gero gurutzean hil genuena jaio dela ospatzeko, 'la casa por la ventana', gasta eta gasta. Daukanak gasta dezala pentsa genezake baina izate hutsak edozer gauza egiteko "visa" ematen al digu?



txetxu urbieta

Ez naiz ni ezeren eredu, ez dut nik inoiz aurreneko harria botako, zerurik bada inperurako bidean izango naiz ni, baina, tarteka, pekatu berriei lekua egiteko bada ere, barrua hustu beharra daukat. Olentzerori eskaera txiki bat ere bai (Doraemonek seguru badaukala), azala aberastu eta arima pobretu beharrean bihotza aberasten duen gailua behar dut, berdin zait bidean azala ximurtzen bazait ere. Eta Olentzero aipatuta, Nerea, noski ikazkinarena egia dela; begiratu zeure barrura eta, botila ardoa hartuta tripontzi zintzoa, beti, zure bihotzean izango duzu.✘

IKUSTEKOA!



▲ HERRIA, KAKA MOKORDOZ BETETA.

Paulo VI auzoan dagoen haurrentzako jolas parkean argazkiko perlak agertzen dira, eguna joan, eguna etorri. Txakurra paseatzera atera eta haien kaka mokordoak jasotzen ez dituzten "jabeen arduragabekeria" salatu nahi du herritar honek, are gehiago "umeeek jolastan duten gunea" batean. "Kontzientzia izan eta arduraz jokatzeko" eskatu nahi izan die herriko txakurren jabeei. 🐾🐾 Herritar bat ✘

|||AZAROKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||



|||maite garmendia|||



Bertso Txapelketa finala

ZORIONAK. Azpeitiko bertso zaletasuna eta maila ona ageri geratu dira mar-txan dagoen bertso txapelketan. Zorionak Beñati. Zorionak Jokini eta Erniarraitz bertso eskolari egin duzuen eta egiten ari zareten lanagatik. Jokin: Txapela buruan eta ibili munduan? Ea hala den!



Kantu jira

HILERO. Kantatzen duen herria inoiz hilko ez delako, eztarriak bero-bero eginda ibili ziren kantuan kaleetan zehar, azaroaren 8an. Eta kantuan jarraitzeko asmoa omen dute hilaren bigarren ostiral arratsean, taldea gero eta handiagoa izan dadin ahaleginean.



Azpeitian bizi eta lan

DUINTASUNA Azpeitian momentu honetan gaizki pasatzen ari direnekin bat eginez hondar-ale solidarioa jarri nahi izan zuten azpeitiar askok eta askok. Kalera atera behar dira kezkek eta ondoezak herria

atxiki dakien. Indarrak batuz lortu behar da aurrera egitea. Azpeitiar askoren egoera latza azpeitiar denona dela ikusarazi behar dugu kaleak betez, elkarrekin lan eginez. ✘

INKESTA

urte zaharrak eman dizun gauzarik onena?

 Ainitze Agirrezabala

IÑAKI URKIA

jubilatua



"Alaba haurdun dago eta urtea bukatzerako bilobatxo bat

jaioko zaigu. Bestalde, kartzelan hainbeste urte egon den Paterra gure artean izatea izugarritzko poza da, nahiz eta beste zenbaitek amorrua hartuko zuten".

GAIZKA OTAMENDI

langilea



"Sekula kanpora atera gabe eta Korsikan izan gara. Diren

garaik izateko ez da gutxi! Krisia dela-eta urte gogorra izan da denontzat, eta datorrena izan dadila hobe!".

INAXITA AGIRRE

jubilatua



"Urtea, oro har, ondo joan zaigu, nobedaderik gabe. Egunero

eskerrak eman beharrean gara, izan ere osasuna lagun dugu. Hori falta bada gainontzeko dena soberan da".

M. PILAR LIZARBURU

jubilatua



"Neuk urte ona izan dut, baina bizi ditugun garaik kontutan izanda,

kezka apur batekin, izan ere seme-alabak bata lanean bestea langabezian... Haien etorkizunak kezkatzen nau".*

Nola landu sexualitatea

Nerabeak dituzten gurasoak gehien kezkatzen dituzten gaietako bat da sexualitatea. Hainbat ikerkuntzen arabera, gero eta gazteago izaten dituzte erlazio sexualak, eta nahiz eta prebentzio aldetik gero eta lan handiagoa egiten den, oraindik ere, 'deskuidoak' gertatzen dira, urrutira joan gabe.

Prebentzio lanean, guraso bezala oso garrantzitsua da seme-alabekin gai horietaz hitz egitea, aurreiritziak eta beldurrak alde batera utzita. Errealitatean, asko kostatzen zaie bai gurasoei, bai nerabe-ei sexualitateaz eta beste edozer gairi buruz hitz egitea. Zergatik? Oro har, garai horretan, gurasoengandik aldentzeko joera dute seme-alabek; bestalde, ziurtasun-gabezia handia eta gurasoen premia izaten dute, eta adierazten dituzten kezkak, gehienetan, zeharka egin ohi dituzte. Oso garrantzitsua da aukera horiek aprobeztatzea, sexualitateko hainbat gai lantzeko. Oso ohikoa da nerabeek sexualitateari buruzko informazioa etxetik kanpo bilatzea,



amagoia aizpuru

nahiz eta, sarritan ez egokiena izan. Bestalde, gurasoek zergatik dituzte zailtasunak? Seme-alabak sexudun pertsona gisa ikusteko zailtasuna dute, haur izaten jarraitzea nahi izaten baitute. Horri gurasoek beraien hezkuntzan barnertuak dituzten baloreak gehitzen zaizkio: 'sexualitateaz ez da hitz egiten'.

Beraz, nola jokatu behar dugu gure seme-alaba nerabeekin? Garrantzitsua da, erne egotea, zeharka edo zuzenean, sexualitateaz hitz egiteko nahia dutela detektatzeko. Entzuterakoan interesa erakustea, gai horren inguruan ez moralizatzea eta ulertokorra izatea. Oso garrantzitsua da gurasoek informazio egokia eta egiazkoa ematea. Oinarrizkoa da nerabeak esan nahi duena entzutea, eta bizipen desatseginei buruz hitz egiteko ez duela beldurrik izan behar jakinaraztea. Galdetu dezaketenez ez da tontakeria, nahiz eta, hala iruditu. Azkenik, oso garrantzitsua da pertsona ez juzgatzea; jokabidea ez bada egokia, ulermenetik, egokira bideratu.*

Galdetzen hasita, gabonetan herrian egingo den azoka herritiken erosiko al duzu zerbait?  Uztarria

Musika jotzen

Urte ikaragarria izan da bukatzearen dena. Aurten azpeitiarron bizitza asko aldatu da. Etorkizuna goibel jantziz, pobrezia kabia egin du gure artean. Gaurkoak du garrantzi osoa eta ezin ditugu planak egin, biharko bizitza nolakoa izango den ez baitakigu; eta hori ez da abentura, hori larritasun hutsa da. Hori gutxi izango balitz bezala, etxe batzuetan gaitxotasunak ere egin digu bisita. Urte majoa benetan!

Baina gure buruaz errukitzea ez da azpeitiarron estiloa. Aurrera joateko gauza gara eta. Horrela frogatu zen azaroak 9ko manifan edo urteroko Musika Eskolaren Santa Zezili jaialdian. Aurten eszenatokian Inaxio Arakistain gaztea aritu zen jole eta aurkezle moduan. Urtero bezala duintasun ikasbide bat eman ziguten.

Txikiak japoniarrez jantzi ziren ekialdeko aireak ekartzeko. Eszenatokitik langileen seme-alaben eskuetan gitarra, pianoa, metala, flauta, trikiti eta panderoa pasatu ziren.



miren alcedo

Txikitan nire auzo proletarioan ez zegoen musika ikasterik, jakite hori ume aberatsen luxua zen. Gauzak aldatu dira; langileen umeek aukera eduki dute sentiberak eta talentu handikoak direla erakusteko. Baina abiltade hori garatzea orain kolokan dago. Zenbat umek utzi beharko dute karrera musikala edo ezingo dituzte ikasketak hasi etxeko egoera ekonomikoa ez dagoelako horretarako?

Luxu bihurtu aurretik langileen seme-alabek harritu gintuzten jaialdian eta garai berri hau gainditzeko estrategia batzuk erakutsi zizkiguten, batez ere, elkartasunaren garrantzia: Horrela ikusi genuen nola indartzen den ahula ematen duen flauta xilofono xume baten ondoan kokatzen denean, edo piano bat zenbateraino nabarmentzen den zortzi eskuz jotzen denean.


Eta murrizketak egin behar badira, musika sortzea posible da baloiak erabiliz ere. Langileok aho-tsa hartu dugu eta isilaraztea ezinezkoa da.*

HAU HOLAXEENK



HERRITARREN LAGUNTZA
 GABE EZIN ZIOAT AURRE
 EGIN LAPATXEKO PIZTIARI!

PIZTU DA PIZTIARI!



Munduaren berri



Mundu asko daude, eta munduaz jabetzeko modu asko. Komunikabideek ematen digute munduaren berri, eta segituan jakin dezakegu munduaren beste aldean ez behar larria gertatu dela, Japoniako gazteen artean orain moda-modan dagoen janzkera, edo artista izeneko famatu batek egiteko gauza hoberik ez, eta egin duen azken xelebrekeria

Hala ere, tranpa bat dute komunikabideek. Iragazki lana egiten dute lehenik, beraien ustez interesgarria dena ematen digute, garrantzitsua dena, beraiek garrantzitsu izatea

nahi dutena. Eta ikusten dugu jendea sufritzen, barre egiten, gauzak egiten, eta irudi horiek interpretatzen dizkigute, beren galbahetik pasatuta. Baina gutxitan iristen zaigu telebistan agertzen den jende horrek pentsatzen duenaren, sentitzen duenaren berri. Gutxitan jakiten dugu zerk kentzen dien loa, nola irudikatzen duten etorkizuna, nolako lotura duten iraganarekin, arbasoekin, zergatik egiten duten egiten dutena eta abar.

Compostelara erromes joan nintzenezan gizon bat topatu nuen bidearen ertzean, aulki batean eserita. Bere garajera sartzera

ñaut frantzesena

gonbidatu ninduen, eta han sartu ginen biok. Ardo trago bat eskaini zidan, eta hizketan hasi zitzaidan gero. Galdera mordo egin zidan. Jakinmina zuen telebistak esaten ziona egia zen edo ez jakiteko, bere egia eraiki nahi zuen, komunikabideek besteri buruz esaten ziotena bestek berari zuzenean esan ziezaiola nahi zuen. Azken batean, mundua ezagutu nahi zuen, mundua eta mundu-tarrak.

Ez da mundua ezagutzeko modu txarra: etxe atarian esertzea eta mugitzen ari den munduari begiratzea.*

Twist

Benetan gertatutako istorio gogor batetan oinarrituta dago. Lasa eta Zabalarri gertatutakoan, adibidez. Liburuan agertzen diren pertsonaia guztiak izen fiktizioa dute.

Soto eta Zeberio etakideen bahiketa, tortura eta hilketarekin hasten da liburua (Lasa eta Zabala izango liratekeenak). Gertakari politiko hau eta ondorengo inbestigazioa eta epaiketak kontatzeko Diego Lazkano pertsonaia erabiltzen du idazleak. Diego Lazkano Soto eta Zeberioaren laguna da.

Diego Lazkanoren bizitzan bere bi lagunek izan duten eragina nabarmen ikus daiteke, eta tortura eta hilketak istorioaren parte garrantzitsua hartzen badu ere, gehiago iruditzen zait giza harremanen inguruko liburua

KRITIKA

'Twist' nobela



Autorea. Harkaitz Cano.
Argitaletxea. Susa, 2011.
Generoa. Eleberria.
Datua. 2012ko Euskadi Literatura Saria irabazi du.

dela. Bertan, errua, maitasuna, traizioa, sexua, indarkeria eta beste gai asko jorratzen dira, baina esan liteke guztien gainetik laguntasunaren inguruko hausnarketa bat dela. Diegok hogei



luix juaristi

urte baino gehiagoan lagunena iztala sentitzen du eta bere bizitzarekin batera lagunena ere bizi nahi du, hiru bizitzak batera bizitzea nahi izango balu bezala.

Idazleak denboran atzera eta aurrera etengabe ematen gaitu. Askotan, erlaziorik ez duten pertsonaia eta istorioak nahasten dira. Hortik datorkio liburuari izena, *Twist*, hau da, garai batean egiten zen dantza nahasi haren bezala pertsonaia liburuan bate-tik bestera dantzan erabiltzen direlako. Batzuetan galdu egiten den sentsazioa ere izan dezake irakurleak, baina liburua aurrera doan eran, hari guztiak lotzen joaten dira, hemen aipatu nahi ez duten bukaera harrigarri batekin amaiera emateko.

Gai arrisksua eta nahasia. Interesgarria.*

AIZPURU AUTOAK
 Landeta auzoa - Telf: 943 81 23 59
 Faxa: 943 81 22 81 20730 Azpeitia
aizpuru@aizpuru.net

IRENE ALTUNA
 LORADENDA
 Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

AZKOITIA
 ERLOJU KONPONKETAK
 Arana, 5
 AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



▲ ESTREINATZEKO PREST.

Santotomasak gainean, baserritar-jantziak josten lanik ez zaie falta Nabar dendan. Mireia Amenabar eta Ana Eizagirre jostunak dira, lankideak. Eizagirrek baserritar-jantzi berria estreinatuko du santotomasetan, eta haren trajea, hasieratik bukaerara, egiteko emandako pausoekin argazki-bilduma osatu du Uztarriak. Argazkian, Eizagirreren jantzi berria, Nabar dendako erakusleihoan.

Jostunaren sekretua

Santotomasak ate joka, baserritar-jantziak josten lana ez zaie falta Nabar dendan. Uztarriak jantziaren josteprosesua bildu du argazkitan. 📷👁️ Ainitze Agirrezabala



▲ TELA AUKERATU.

Oihala edo ehuna hautatzerako garaian aukera zabala eskaintzen dute. Nabar dendako Mireia Amenabarren esanetan, "bezeroari egiten zaion lehen galdera da zer kolore duen gustukoen. Izan ere, telak klasikoagoak edo kolore gehiagokoak izan daitezke. Ideia oso argiekin datoz batzuk; beste batzuk, berriz, ideia handirik gabe. Azken horiei aholkuak ematen dizkiegu". Argazkian, Amenabar Eizagirre lankideari telak erakusten.

► ZER MODELO?

Aurrez jositako eredu desberdinak, argazkiak, liburuak... erakusten dizkie bezeroei, josi nahi den modeloa aukeratu dezaten. "Modelo desberdinak egiten saiatzen gara, jantzi bakoitza pertsonalizatzen; ez daitezela bi eredu berdinean egon. Izan ere, ordaintzen duenak zerbait desberdina, berezia nahi du".





▲ NEURRIAK HARTU.

Lanean hasterako hartzen zaizkio neurriak bezeroari. Baserritar-jantziak, batez beste, lau bat urte irautea nahi izaten da. "Umeen jantzien kasuan, tolestura handia uzten zaie, umea hazten joan ahala atera ahal izateko".

► LEHENENGO PROBA.

Behin jantzia albainduta lehen probaketa egiten zaio bezeroari. Aurreneko probaketa horretan, gorputzera estutzen edo egokitzen da jantzia eta jostunak ikusten du zer moldaketa egin behar zaizkion.



▲ TELA MOZTU.

Tela ganean patrioiak jarri, markatu eta moztu egiten dira eta, ondoren, albaindu edo hilbandu (argazki txikian, albaintzen).





▲ MAKINAZ JOSI.

Lehenengo probaketa eta moldaketak egin ondoren, jantzia makinaz josten da. Gero, bigarren proba bat egiten da bezeroarekin, egin beharreko azken ukituak eta detaileak (botoiak, erremateak, parpailak...) zehazteko. Goiko argazki txikian, botoiak josten.

▶ PLANTXATU.

Baserritar-jantzia josi eta azken ukituak egin ostean, plantxatu egiten dute, bezeroak etxera eraman dezan. Argazkian, Eizagirre mantala plantxatzen. "Baserritar-jantziak prezio bat edo beste du umeena edo helduena izan; edo aukeratutako modeloaren eta telaren arabera. Batez beste, 150 euro balio du jantzi osoak. Garestiagoak baditugu, merkeagoak ere bai." ✦



Buztinezko txerri gizenari heldu zaio San Martin eguna. Duela bost urte, 2008ko ekainean, artean krisiaren gogorrena lehertu gabe, Uztarrian argitaratutako erreportaje batean herriko hainbat enpresarik, sindikatuetakako ordezkariak eta ekonomian adituek zioten ekonomian garai zailak zeudela, baina Azpeitian motelaldia ez zela asko nabaritzen eta larritzeko krisirik ez zegoela. Uztarraren 96. zenbakiaren azal hartan buztinezko itsulapiko gizen bat ageri zen. Hil honetako zenbakirako, hain zuzen, itsulapiko hura bera hartu du Uztarriak eta mailu batez puskatu, aurreztutako txipi-txapak erabiltzeko premia gorrira heldu baita herrira.

Domino efektua

Esan beharrik ez dago, ekonomikoki herri oparoa izan da Azpeitia, krisia gogor astintzen hasi den arte. Eraikuntzari gogor eragin dio krisiak, eta Azpeitia bete-betean egon da lotuta sektore horri; eraikuntza enpresek, altzarigintzak eta siderurgia sektoreak herrian izan duten pisua da horren lekuko. Corrugados itxita eta altzari lantegiak ere ixten edo hari-harian, domino efektuaren indarra medio, herriko autonomoen pertsianak ere jaisten ari dira.

Zenbakiei begiratu besterik ez dago urte gutxitan Azpeitiko egoera nola okertu den ikusteko. Mundu mailan krisia 2007ko udazkenean, irailean, lehertu zela hartzen da erreferentzia bezala, eta ordutik langabezia tasa



Kontua beltz

Herriko ekonomiaren gainbehera nabarmena da, eta langabezian dauden herritarren kopurua gero eta handiagoa. Uztarriak lekukotzak jaso ditu. 📌 A. Agirrezabala



ia laukoiztu egin da, 327 langabetu izatetik 1.171 langabaturainoko bidea eginda. Kri-siaren zaplastekoa dela eta, beharrea dau- den gero eta familia gehiago daude herrian. Udaleko Gizarte Zerbitzuetan dituzten da- tuak horren erakusgarri dira: 2008tik 2014ra azpeitiarrek jasotako diru-laguntzak ia lau- koiztu egin dira. 2008. urtean 87.821 euro jaso zituzten herritarrek bakarkako eta fami- lientzako premiazko diru-laguntza gisara; aurten, berriz, 305.000 euro. Eta aurreikus- penen arabera, datorren urteak ez du itxura hoberik. Hala adierazi dio Gizarte Zerbitzue- tako teknikari Edurne Zubiak Uztarriari: "Da- torren urtean egoera larritu egingo dela uste dugu. Izan ere, oraindik langabezia saria ja- sotzen ari diren askori, Corrugadoseko langi- leak tartean, amaitu egingo zaie diru hori".

Egoera ekonomiko txarraren eragina be- rraien azalean sufritzen ari diren hainbat herri- tarren bizipenak jaso ditu Uztarriak: besteak beste, unibertsitateko ikasketak egin eta zientoka curriculum banatu ostean, lana aur- kitu ezin duten bi gazteren esperientzia, edota Azcue altzari lantegia eta siderurgia sektoreko Corrugados itxi ostean kalean ge- ratu diren hiru herritarren gora-beherak.

Ez dira krisiak zuzenean eragindako baka- rrak, ezta gutxiago ere. Agian, ezta egoera kaskarrean daudenak ere. Bai, ordea, be- rraien bizipen pertsonalaz hitz egitera animatu diren bakanetakoak. Langabezia edota egoera zailean egotea gure inguruan, zoritxa- rrez, gero eta ohikoagoa den arren, jende as- korentzat oraindik tabu moduko bat dela ere nabarmena da.✘

||| KRISIA ZENBAKITAN |||||

LANGABEZIA TASA.

%17,20koa da Azpeitian (urriko datua), Urola Erdian %16,23koa, Gipuzkoan %14,70ekoa eta EAEn %16,90ekoa.

Hazi egin da langabetu kopurua Azkoitian eta Azpeitian 66 eta 93 unitatetan, hurrenez hurren, uztailetik urrira. Urria amaieran 1.174 langabetu zenbatu dira Azpeitian, irailan baino hiru gehiago.

GIZONEZKOA vs EMAKUMEZKOA.

Handiagoa da emakumezkoen langabezia tasa herrian gizonetzkoena baino: %17,60 eta %16,90. Gizonetzkoen gehiago eragin die langabeziak, industriarekin gehiago lotuta dagoen sexua delako.

1.294 gizonetzko langabetu eta 1.112 emakume zeuden Urola Erdian, 2013ko urrian; 2007ko irailan, lanik gabe 269 gizon zeuden eta 444 emakume.

Zazpikoiztu egin da azken sei urtean, 45 urtetik gorako gizonetzko langabetu kopurua. Hori da langabezia gehien handitu den segmentua: % 617,50.

25 eta 44 urte arteko gizon-emakumeek langabeziaren erdia osatzen zuten urrian. Adin tarte horretan, bi sexuen arteko diferentzia nabarmen berdindu da, 2007tik.

LANGABETUEN PRESTAKUNTZA.

Derrigorrezko ikasketez gaindiko mailarik ez du 2.406 langabaturatik 1.423k (ia hamarretik sei). 160k batxilergoa dute; 527k lanbide heziketa eta 296 unibertsitarioak dira.

Langabetuen %50ek 25 eta 44 urte artean dute; %42k 45 urtetik gora.

Segmenturik zigortuena 45 urtetik gorako eta derrigorrezko ikasketak arteko gizonetzkoena da. Langabetu guztien %19.

25 eta 45 urte bitartean ikasketak unibertsitarioak dituzten 135 emakume langabetu daude, adin berean dagoen gizonetzko kopuruaren (70) ia bikoitza.

26 unibertsitario langabetu daude 25 urtez azpiko emakumeetan. Adin berean, soilik, ikasketak unibertsitarioak dituzten bederatzik gizonetzko daude.

KONTRATAZIOEN GARAPENA.

Kontratazioak. %90 aldi baterakoak dira. Azken sei urtetan, industriak eta eraikuntzak kontratazio kopuruan pisu asko galdu dute.

Iraurgi Berritzen, 2013ko urriko buletin sozioekonomikoa.

▶ URRITZ IRURETAGOIENA

|||Adina. 27 urte. |||Ikasketak. Ingeniaritza tekniko elektrikoa.



“Ez didate inondik deitzen”

“Bost urte badira hiru urteko karrera bukatu nuela. Ikasketa amaierako proiektua Glualen egin nuen, baina bukatu eta kalera. Lan bila, hemen inguruko enpresetara curriculumak bidali nituen, baina kontua hasia zegoen gaiztotzen, eta ikusita lan-eskaintza askotan ingelesa eskatzen zutela, Londresera joan nintzen, 2010eko otsailean. Urte eta erdi egin nuen han, jabetxe batean lanean. Londrestik bueltan, ingelesa ondo ikasita, lana bilatzeko esperantza banuen, baina hemen mugimendurik ez eta lagun bat eta biok Australiara joan ginen zortzi hilabeterako, lanera. Krisiak bidaiatu eta leku berriak ezagutzeko aukera eman dit, behintzat.

Karrera hastean, ingeniariatzen lana lepo zegoen, eta begira orain. Curriculum mordoan eman dut eskualdeko enpresetara, baina ez didate inondik deitu. Unibertsitateko ikaskide gehienak ere egoera berean daude. Interneteko lan-eskaintzen atarrietan ere sartzen naiz, baina askok hiru urteko esperientzia eskatzen dute. Azken urte eta erdian lantxo batzuk egin izan ditut: matematikako klase partikularrak eman, mahatsa bildu... Orain, abiaratze teknikoko 500 orduko ikastaroa ari naiz egiten Elgoibarko IMHn. Trebatzen segi beharra dago. Pare bat lan-elkarrizketa egin ditut, urtebeterako Indiara eta Txinara joateko. Ez zen aurrera atera, ordea; bestela joateko pronto nengoke. Kanpora joateko arazorik ez dut, noski, hemen nahiago baina... Alemaniara-edo ingeniari bezala lan egitera joatea ere pentsatu dut, baina hara ere jende asko joana da eta nahikoa zaila izango da lana bilatzeari. Orain langabezia saria kobratzen ari naiz, baina etsita nago! Ea kontua pixka bat hobetzen hasten den eta zeozer ateratzen zaidan. Ezin galduko dugu esperantza”.

ANE BEREZIARTUA

|||Adina. 26 urte. |||Ikasketak. Psikologian lizentziaduna.



“Trebatzen segiko dut”

“Duela hiru urte lizentziatu nintzen, bost urte ikasten pasatu eta gero. Karrerako azken urtean Argentinan praktikak egin eta, geroztik, han eta hemen sortutako lantxoak egiten aritu naiz, baina psikologo lana egiteko ez dut aukerarik izan. Lan aukerarik ez, eta Hegoafrikara, Ciudad del Cabora, joan nintzen bolondres bi hilabeterako, ume autistekin lana eginez ingelesa trebatzera. Azken urtebetean, egun gutxiko lan kontratuetan bakarrik aritu naiz, ia lanik egin gabe, curriculumak bidali eta bidali, desesperatuta. Lan-eskaintzetan esperientzia eskatzen dute. Nola izango dut esperientzia, lanerako aukerarik eman ez badidate?”

Karrera bukatuta lan munduan sartzea trantsizio gogorra da denontzat, baina psikologoena are eta zailagoa da. Lizentziaturarekin bakarrik oso zaila da; master bat-edo egin beharra dago eta horretarako diru asko behar denez, hasierako urteetan ohikoa da psikologiarekin zuzenki loturik ez dauden lanetan aritzea. Orain, hiru urteko psikologiako postgradua eta naturopatiako ikastaro bat ari naiz egiten. Norbere gabinetea zabaltzea da beste aukera, baina ez dira garai onak.

Azkoitiko Tele Pizzan hasi naiz lanean. 2010ean ikasketak bukatuta niri esan izan balidate han bukatu behar nuela, sekulako negargura emango zidan, baina hemen heldu beharra dago zerbaiti. Horrez gain, klase partikularrak ematen dizkiet Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haur eta gazteei, eta liburuak albo batera utzi eta barrena husteko ere espazio aproposa da nerabe horientzat.

Inoiz ez dut baztertu izan denboraldi baterako lanera kanpora joatea, baina mutil-lagunak lana badu eta dena utzi eta joatea ez da kontua. Garaiak hobetuko diren esperantza dut, bitartean trebatzen segiko dut”.

OLATZ SEGUROLA

|||Adina. 56 urte. |||Egoera. Altzari lantegi batean 38 urtean egin du lana.



“Programatutako plana da”

“200 langiletik gora ginen plantillan 2008an. Bideragarritasun plana medio, lehenbizi berrondatezko kaleratzeak izan ziren; gero, aurrejubilatua; gero derrigorrezkoak. Eta lau urteren barruan, bideragarri uste zena, harri-garria bazen ere, dena behera erori zen.

Taldetxo bat martxan jartzeko ahaleginak egin baziren ere, ez zen posible izan gobernutik ez zegoela-eta laguntzarik.

Urte asko eraman ditut lanean eta ondorioz eskuetan desgaste dezentea daukat. Lanari uztea gomendatu zidaten eta, egia esan asko mehoratu zaizkit lanari uztean. Minik ez dut, behintzat.

Bi alaba izan nituen eta orduan bai egin zitzaidan gogorra lanean horrenbeste ordu egin beharra. Garai hartan ez zegoen amatasun laguntzarik. Nire bizitza asko aldatu da azkeneko urte honetan; nire bilobena eta aitaren gana gehiago gerturatu naiz, familia giroan naizela esango nuke. Bestalde, nire autonomia proiektuari dagokionean, 54 urte ditut eta jubilazioa urrutitatu dut.

Senarrak Grumalen lana egiten du eta haiek ere ez dute panorama ederra. Askotan pentsatzen dut norbaitek programatutako plana dela hau. Denak patroi beretik erortzen dira. Eta orain kooperatibak ere bai. Nork esan behar zuen?

Gurea nahiko egoera tristea bada ere, tamalgaria gaurko gazteek dutena. Laurek erabakiko dute baina jende xumeak ondorioak sufrituko ditu. Herrian antzeko egoeran jende ugari ikusten dut. ‘Zona zero’ bezala ezagutzen hasi gara Urola alde hau. Industrialdetik enpresa asko Azkoitira alde eginda ditugu eta formakuntzaz ere ez gaude oso iaio. Aurretik oso erlaxatuta izan bagara ere, badugu zer egina guztiok herrian”.

JUANJO LARRAÑAGA JEXUX LARRAÑAGA

||| **Adina.** 54 eta 56 urte. ||| **Egoera.**
Siderurgia lantegi batean egin dute lana.



“Talde polita goaz Angolarara”

“Bizi osoa bertan lanean, ez genuen bela pentsatuko enpresa itxiko zenik eta Angolan

bukatuko genuenik. Han bertan ari dira erakitzen laminazioa eta altzairutegia, eta hemendik zazpi laguneko taldea goaz martxan jarri eta hango jendeari ofizioa erakustera. Corrugadosen gure enkargatua izandako baten bidez heldu zaigu eskaintza. Hasieran, ‘ezta pentsatu ere! Nola joango gara ba!’, erreakzionatu genuen. Azkenean, talde polita osatu dugu, betidanik lankideak, oso ondo eramaten gara eta horrek animatu gaitu.

Dugun adina eta formakuntzagatik hemen lana bilatzea ia ezinezkoa da, eta jubilatzeko falta zaizkigun urteak kotizatzen ez baditugu nire kasuan –dio Juanjo– jubilazioa ezerezean geratuko zait. Nik –dio Jexuxek– 56 urte egin behar ditudanez, legez 61 urtera arte enpresak kotizatu beharra du nire gizarte segurantzara. Ni ez nago horren gaizki. Nik –Juanjoen kasuan– 54 urte ditut eta 11 hilabete falta izan zaizkit konbenio berezi hori harapatzeko. Pena da.

Urtarrilean goaz, hasiera batean urtebeterako, nahiz eta egonaldia bi urte eta erdira luzatzea eskatu diguten. Han hiru hilabete eta erdi lana egin eta bi asterako etxera etorriko gara. Bidaiak enpresak ordainduko dizkigu. 40 metro karratuko etxetxo bana eta self-service zerbitzuko jangela izango ditugu. Interнета ere izango dugu eta skype hitz egingo dugu familiarekin. 27 urtean egon dira gerran eta han zer topatuko dugun kezka badugu. Oso aberatsa da petrolio eta diamante asko baitu, baina zerbitzurako enpresarik ez dago eta munduko hiribururik garestiena da. Jourgurt batek 3 euro balio du, hamburgesak 20... Gaitz asko dago han eta txertoak ere hartuta ditugu; kontu handia tzetze eulierekin izan beharko dugu. Halere, 44 urtean Angolan bizi den moja urrestildarrak aholkuak eman dizkigu; umilak bagara eta lanera joanda, arazorik ez dugula izango esan digu. Asko lasaitu gaitu harekin hitz egiteak.”✳

MIREN LARREA Lehiakortasunerako euskal institutuko ikertzailea

“Dibertsifikazio produktiborako estrategiak behar ditugu, hori da une honetan apustua”

||| **Krisiaren olatuak bortitzak izanagatik,** “etorkizuna definitzeko bide berriak jorratzea ezinbestekoa” dela dio ekonomian doktoreak.

Krisia lehertu bezperatan, 2008ko ekainean, Uztarriraren erreportaje batean aitzitzen zen larritzeko krisirik ez zegoela.

Krisi aurretik, Iraurgi Lantzenen nengoen lanean eta 2006-2007an, krisi hau usaintzen ez bagenuen ere, Azkoiti-Azpeitiko enpresen egoera aztertzeke hausnarketa bat egin zen. Genezkan sektoreak –siderurgia, altzarigintza– tradizionalak ziren, egun lehiatzeko apustu sendoak eta berrikuntzak egitea behar zuten jarduerak, alegia. Krisi estrukturala zen eta, horregatik, krisi finantzarioa etorri gabe ere, bestelako krisi bat etorri eta enpresa batzuk itxiko zirela kontziente ginen, mahai gainean zeuden datuak. Siderurgia-enpresa bateko gerente batek bilera haietan esan ohi zuen han bilduta zeudenetako

batzuen enpresak hamar urtera ez zirela egongo. Alarmismorik gabe baina krisi sentsazioa sortu beharra zegoela. Une hartan, ordea, ondo bizi ginen, eta konplazentzia horretan aurrera begiratu gabe bere hartan segi genuen. Pentsa gero zer etorri zaigun; enpresa asko itxi eta beste asko egoera larrian daude, eta handia da ezkortasuna, guzti honen aurrean ezer egiterik ez dagoen sentsazioa.

Herriko ekonomia-zer erradiografia egiten duzu?

Gure industria sektorea oso gogor ari da jotzen krisia eta enpresak bat bestearen atzetik erortzen ari dira. Udalerrien enpresa eta mapa produktiboa asko ari da aldatzen. Herrian siderurgia eta altzarigintza sektore garrantzitsuak izan dira beti, baina siderurgia galduta eta altzarigintza gainbeheran, etorkizuneko gure jarduera produktiboa zer izango da? Zerekin identifikatuko da etorkizuneko Azpeitia?



Eraldaketa handi baten aurrean gaude. Horren aurrean, etorriko zaigunaren zain egon beharrean, erreakzionatzea eta mobilizatzea beharrezkoa da herriaren identitaterako etorkizuna definitzeko. Gauden egoeran, gero eta garbiago ikusten da hau ez dela enpresen kontua bakarrik. Enpresek, udalek, unibertsitateek, zentro teknologikoez, gobernuek, garapen agentziek, hor inguruan sortzen ari diren saretze proze-

suek... Horiek guztiek modu koordinatuan lana egitea oinarritzea da; ikuspegi eta apustu amankomun batekin. Zer izango da herriko jarduera nagusia edo zerk identifikatuko gaitu? Galdera hori hor dago.

Nola egiten zaie aurre horrelako egoerei?

Dibertsifikazio produktiborako estrategiak behar ditugu, enpresei beste jarduera batzuetara trantsizio hori egiten laguntzeko. Dazkagun jarduerekin lehiatzeko eta enplegua sortzeko arazoak ditugu eta, beraz, egiten dakigun horretatik abiatuta, etorkizun gehiago izan dezaketen beste jarduera batzuetara eboluzionatzeko gai izan behar dugu. Apustua hori da, merkatuetan lehiatzeko balorea emango dion balio erantsia sortzea gure jardueran. Iker-tzaile bezala gure lana epe luzerakoa da, eta gogorra da enpresari orain dibertsifikazioari eta berrikuntzei buruz hitz egitea, kontziente gara finantzazioa falta dela, animoa falta da, merkatuak ez daudela ondo... Baina gaur apustu horiek egiten ez baldin baditugu, etorkizuna dago jokoan. Ezinbestekoa da bide berriak bilatu eta jorratzea.”✳

Txio artean, hegan

Twitter da, Facebooken atzetik, erabiltzaile aktibo gehieneko sare soziala. Txiolarien artean herritarrak ere badira, nahiz erabilera desberdina eman. 📌 J. Frantzesena

Behinola, Mikel Pagadik proposatu zuen *#mitozaharrak traola* Twitterren, eta a zer nolako arrakasta! Bi orduan mila txiolari eta 2.000 txio ala bertxio. Jendetza hasi zen bururatutako mito zaharrak idazten. Azpeitiarrak ere baziren tartean, eta bestelakoez gain, Azpeitiari edo azpeitiarrei lotuko mito batzuk ere bai: "Azpeitin dao Euskal Herriyen metro koadroko BMW gehien", "Marialuisa hiltzen denean Goenkale bukatu egingo da", izugarritzko bazkaria egin eta, "helaue ona da bazkaria jaisteko"..

Zaila da Twitter zer den azaltzea. Izatez sare soziala bada ere, informaziorako eta komunikaziorako ere erabiltzen du hainbatek. Twitterren inguruko gero eta kontu gehiago entzun eta irakurtzen dira komunikabideetan, eta urte gutxian hedapen izugarria izan du mundo osoan. Azaroaren 7an, Twitter berak kaleratutako datuen arabera, 231 milioi erabiltzaile aktibo zituen (Facebookek baino bost aldiz gutxiago).

Esaerak dio toki guztietan daudela azpeitiarrak, eta Interneten, Twitterren, ere badira, noski. Ez dago azpeitiar txiolarien zifra zehatza jakiterik, baina hainbat dira informazioaren eta bestelakoen joan-etorriko jario hori denborapasarako zein lanabes moduan erabiltzen duten herritarrak. Horietako batzuekin hitz egin du Uztarriak sare sozialaz.



Ezkerretik eskubira eta behetik gora: Borda, Etxeberria, Alkorta, Elduaian, Urbieta eta Odriozola.

Lanerako tresna

Gero eta gehiago dira Twitter informazio edo komunikaziorako erabiltzen duten azpeitiar kazetariak. Oihana Elduaien *Berria*-ko eta Txetxu Urbietta Euskadi Irratiko kazetariak badute, esaterako. Twitterrek zuzeneko kontaketa egiteko ematen duen aukera medio sortu zuen kontua Elduaienek, eta lanerako soilik erabiltzen du: "Kazetaritzaren eraldaketa bizkor eta amaigabeko honetara egokitu behar du *Berria*-k ere, eta bide horretan egindako urratsa izan zen zuzeneko kontakizunekin hasia. Jendea ohitu da momentuan momentukoa jasotzen, hori kalitatearen kalterako izanda ere. Azkar eta ondo, usoak hegan!, eta Twitterren bat-batekotasuna eta azkartasuna baloratzen dira, beste ezer baino gehiago". Urbietaren aburuz, Twitter da gaur egun lanerako daukaten "tresnarik egokiena": "Kiriolarien jarraipena egin eta albisteak zein emaitzak lortzeko parekorik ez duen lan-tresna da guretzat. Ni lanean hasi nintzenean askotan albisteak etorri zain egon behar izaten

nuen, eta gaur egun albiste horixe dago, eta bila joan behar da".

Elduaienek uste du gazte jendea, batez ere, Interneten eta Twitterren dagoela, eta "hor egon beharra" dutela. "Komunikabide-entzat garrantzitsua da jario horretan egotea, edukiak zabaldu ahal izateko. Informazioa jasotzeko ere tresna oso ona da, iturri onak aukeratzeko jakinez gero". Urbietak "iturria ez, urtegi erraldoia da Twitter", dio: "Azketako ura bezain gardena batzutan, eta garai bateko Nerbioikoa bezain zikina, beste batzuetan". Halaber, Twitterren nor jarraitu erabakitzea "funtsezkoa" dela deritza irriti esatariak: "Kazetari sena erabili behar da horretarako, eta kazetariak pasatu behar du galbahea. Izan ere, askotan, kazetarioi ahaztu egiten zaigu gure lanbidearen lehen legea albiste kontrastatzea dela".

Jarioaren erdian

Informazio sortzaile ez, agian, baina informazioaren jarioan eragile dira Eider Alkorta eta Haritz Odriozola. Bata politologoa eta bestea ingeniaria, baina biek ala biek elkarbanatzen dute sarean pil-pilean dabilen informazioa eta horien gaineko iritzia eman ere bai. Alkortak "aktualitatea jarraitzeko" erabiltzen du, batez ere, Twitter: "Informazio iturri moduan erabiltzen dut, eta gai baten inguruko iritzia emateko, sarean dauden eztabaidak jarraitzeko edo aldarrikapenak egiteko zait ba-

||| "Berehalakotasun eta etengabeko jario horrek gauzen inguruan patxadaz pentsatzeko tarte kentzen digu"

OIHANA ELDUAIEN
'Berria'-ko kazetaria

||| "Idazten dudanean zaila zait nire iritziaren eta ordezkari publikoaren iritziaren artean desberdintzea"

ENEKO ETXEBERRIA
Azpeitiko alkatea

liagarria". Odriozolak "aisirako" erabiltzen duela dio, eta "interes antzekoak dituen jendearekin komunikatzeko ala beste ikuspuntu bat dutenekin iritziak elkartrukatzeko" tresna ona delakoan dago. Dena den, Alkortak ikusten dio zera bat Twitterri: "Adierazpen askatasunarekin lotzen du zenbaitek, baina kontrol soziala eta politikoa ere ahalbidetzen du".

Informazioari ez hain lotuta, baina guztiz alboratu gabe erabiltzen du Ane Bordak Twitter: "Intereseko albiste, kuriositate, kritika, argazki zein bestelakoen berri izateko zait baliagarri". Idatzi, idatzi, ez du txio asko idazten, baina "denbora libre" duenean erabiltzen du.

Eneko Etxeberria Azpeitiko alkatea ere badu Twitter kontua, eta "herritarrengandik gertuago izateko tresna moduan" erabiltzen duela azaldu du: "Interaktuaziorako aukera ematen du, eta tresna indartsua da modu horretan. Edonork zuzenean galdetu edo egin ditzake ekarpenak, eta herritarren iritzia jasotzeko ere balio du. Dena den, idazten dudanean zaila zait nire iritziaren eta ordezkari publikoaren iritziaren artean desberdintzea. Arretaz erabili beharreko tresna da Twitter, gero eta oihartzun handiagoa du-eta".

Onena eta txarrena

Esan nahi duzuna, nahi duzun moduan, baina 140 karakteretan. Halakoa da Twitter mikrobloga. Hankamotz geldituko zen zenbait idazterakoan. Alkortak dioenez, "zuri edo beltzera jokatu behar da idazterakoan, gutxi matizatu behar da, eta erraz sor daitezke gaizki ulertuak. Hor ez naiz oso eroso sentitzen". Odriozolak uste du "askotan motz geratzen" dela: "Nahasmena ere sortu izan du hain labur idazteak. Gauza garrantzitsuez hitz egiteko, hobe pertsona aurrez aurre". Bordaren aburuz, berriz, "askotan 140 karaktere nahikoa dira albiste edo iritzien berri izan eta emateko".

Elduaienen ustez, "aukera ematen du ia edozertaz zerbait bada ere jakiteko, baina berehalakotasun eta etengabeko jario horrek gauzen inguruan patxadaz pentsatzeko tarte kentzen digu. Axaletik jarraitzen ditugu gauza asko, eta sakonean ia ezer ez". Aldiz, Urbietaren ustez tresna "ondo erabiltzean" dago gakoa: "Iritzia ematea erabat demokratizatu da, baina bakoitza da bere iritziaren jabe eta morroi". Odriozolak, berriz, hiri kosmopolita batekin alderatu du Twitter: "Mila pertsona, mila iritzi, mila hizkuntza. Eta, horietatik gustuko dituzunak jarraitzen dituzu, eta gainerakoek ez dizute eragozpenik sortzen". Etxeberriaren aburuz, "pasibotasunak ez du tokirik Twitterren".✳





||||| aiora olaizola |||||



||||| ihintza elustondo |||||



||||| amets cañizares |||||

Agur!

Ihintza. Hemen gaitun hamabigarren aldiz berriro ere.

Aiora. Bai, hilero bezala hemen elkartu gaitun mahaiaren inguruan.

Amets. Gabonak ere hementxe daude eta familiarekin ere berdina egingo dinagu.

Ihintza. Jende asko faltako dun aurtengoan ere Gabonetako bazkari eta afarietan.

Aiora. Mahai inguruan ez ditun egongo, baina gure oroimenetan presentzia handia izango diten.

Amets. Orokorrean urte oparoa izan dinagu.

Ihintza. Bai, osasun aldetik askotan kaxkar xamar ibili arren, aurrera egin dinagu.

Aiora. Barre asko egin dinagu elkartu garen guztietan.

Amets. Esperientzia polita izan dun zuekin lerro hauek idazteko aukera izatea.

Ihintza. Ea datorren urtea zer moduz hasen dinagun.

Aiora. Elkarrekin jarraituz gero, bihotza beti bero.

Amets. Ederra errima.

Ihintza. Errima esan dunala, ez duzue aurtengo bertsolari txapelketa nagusirako sarrearik izango?

Aiora. Neuk ere gauza bera galdetu behar nizuen.

Amets. Egon zaitezte lo eta mehe jango duzue! Nik erosi ninan bere garaian eta hantxe egongo naun finalaren egunean.

Ihintza. Aprobetxatu ezan, Aiorak eta nik etxeko sofatik ikusi beharko dinagu eta.

Aiora. Bai besterik ezean.

Amets. Ea nola joaten den aurtengoan, sorpresa bat edo beste izan dizkinagu jada.

Ihintza. Batek eramango din txapela, baina denek merezi diten.

||| **AIORA.** “Hemen egon gaitun urtebetez hilero gure kontuak kontatzen”

||| **AMETS.** “Bai, ez hitunan denen gustukoak izango baina tira, saiatu gaitun!”

||| **IHINTZA.** “Zuentzat gure azken esaldiak, irakurleok! Eskerrik asko!”

Aiora. Guk ere merezi dinagu, ez? Hemen egon gaitun urtebetez hilero- hilero gure kontuak kontatzen.

Amets. Bai, ez hitunan denen gustukoak izango baina tira, saiatu gaitun behintzat!

Eskerrik asko, irakurle

Ihintza. Zuentzat gure azken esaldiak, irakurleok!

Aiora. Espero gutaz gozatu izana!

Amets. Eskerrik asko Uztarrria, guri aukera hau emateagatik.

Ihintza, Amets, Aiora. Eta nola ez, zuei. Eskerrik asko Uztarriazaleok!✘





ONDO PASATU SANTO TOMASAK 2013


Azpeitiko Udazkeneko Azoka Berezia, dantza txapelketa, musika, buruhandiak, txorizoa, bertsolariak, pilota partidak... egun guztian zehar herriko kaleetan



Azpeitiko Udalak dei egiten dizue azpeitiar guztiei eraso sexisten aurrean jarrera aktiboa har dezazuen. Eraso sexisten aurrean 112 eta 943 151313.



Garai erabakigarria

Komunikazioaren munduak bizi duen aldaketa sakonaren aurrean, Uztarriak dituen erronken berri eman eta bazkideen iritziak eta ekarpenak jasotzea du helburu urteko bazkide batzarrean.  Uztarria

Uztarria Komunikazio Taldeak 2013aren balantzea eta 2014ari begirako aurreikuspen eta planak azalduko ditu hilaren 26an egingo duen urteroko batzarrean.

laz, Uztarriaren erronka nagusia webgune berritua martxan jartzea izan zen. Aldaketek erantzun oso zabala eta bisita kopuruan igoera handia izan dute. Aurten, berriz, eskualdeko komunikazio proiektu bateratuaren inguruko hausnarketa izan du ardatz. Eskualdeko tokiko hainbat hedabidek elkarlanean proiektu bateratu bat martxan jartzeko saiakera egin da, eta batzarrean prozesuaren nondik-norakoak azaldu nahi dira. Garai erabakiorra bizi du Uztarriak eta, beraz, bazkideen iritzia eta ekarpenak jasotzea inoiz baino garrantzitsuagoa da.

DATUAK

Zer. Uztarria Komunikazio Taldearen urteko bazkide batzarra. **Eguna.** Abenduak 26 (osteguna). **Ordua.** 19:00. **Tokia.** Sindikatu Zaharra. **Antolatzailea.** Uztarria Komunikazio Taldea.

Bestalde, datorren urtera begira Uztarriak dituen asmoen eta erronken berri ere emango du. Era berean, Uztarriak eskaintzen dituen produktuen eta zerbitzuen inguruan bazkideek duten iritzia ezagutu nahi da, beti ere eskaintza hobetzeko helburuarekin.

Diru kontuei dagokienean, 2013ko balantze ekonomikoa eta 2014rako duen aurreikuspena azalduko zaie bazkideei.*

UZTARRIA ZENBAKITAN

109.000 bisita gehiago izan ditu iazkoarekin alderatuta uztarria.com-ek, abenduko bisitak kontatu gabe.

1.040 bazkide ditu Uztarria Komunikazio Taldeak. Mila esker guztioi, zuen laguntzagatik!*



Uztarria komunikazio Taldeko eta Eregiko ordezkariak, iazko bazkideen batzarrean.  Uztarria

BESTERIK

1 Bi lasterketa, urtea bukatzeko Ehunka lagunek urteari agur lasterka emango diote, San Silbestre lasterketan. Bi aste lehenago, Ikasberri ikastola inguruetako zelaietan XVI. krossa jokatuko da.

Eguna. Abenduak 15 eta 31 (igandea eta asteartea).

Ordua. 10:00 eta 12:00, hurrenez hurren. **Tokia.** Ikasberriko kanpa eta plaza.

Antolatzailea. Ikasberri K.E. eta Xeye Atletismo Taldea.

2 Txorizoa eta taloa lagun

Baserritar trajea jantzi eta Santo Tomas Eguna ospatuko da herrian. Hainbat ekimen antolatu dituzte egun guztirako: eskuzko pilota partida finalak, baserriko produktuen azoka berezia, bertsolariak, dantza-suelto txapelketa...

Eguna. Abenduak 21 (zapatua). **Antolatzailea.** Azpeitiko udala.

3 Gabonetan ere Azoka Herritik

Herriko ekonomia eta bizitza soziala indartzeko asmoz, azoka izango da. Besteak beste, umeentzako elkartasun azoka, baserritarren postuak, kultur emanaldiak, artisauak, bidezko merkataritza, Bertan merkataritza elkartearen eskaintzak eta herriko taldeen postuak.

Eguna. Abenduak 27 eta 28 **Antolatzailea.** Azoka Herritik.*

 Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

2000€ko

erosketa-txekeen zozketa
elkarteko dendetan gastatzeko

Abenduak 20

- 500€ko saria
- 200€ko saria
- 100€ko saria

Abenduak 27

- 200€ko saria
- 200€ko saria
- 100€ko saria

Urtarrilak 3

- 500€ko saria
- 200€ko saria




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

112000000
420000000

azpeitia
udala

bertan bizi
erosi
azpeitiko merkatari elkarteak

HITZ GEZIDUNAK

	Baserritarra		Hankazgora jarri		Prostitutak		Segan jarduten dute		Zipreko hiriburua
	* Deitura		Txanpon zaharra		Esneki mota		Musika nota		
	Araudi								
	Bokala								
Zer nolakoa?		Axola					Nor, pluralean		
* Izena		Oso-oso txiki					Jakinarazpena		
			Ongi finkatu gabe						
			Frantziako hiriburua						
Lapa-belarraren fruitu							Biluzi, gabe		
Amerikako estatua							Horkoa		
					Ardiaren ar				
					Gipuzkoako herria				
Abesbatza				Bokala		Gipuzkoako ibaia			
Lotan				500		Anno domini			
		Indiakoa							Lehenengo
		Bokal mehea							
Erraz aise				Kexuka					

 Egilea: Luma

* Dantzari azpeitiarra

HIZKI ZOPA


Aurki itzazu hizki zopa honetan beren armarrietan balea irudikatzen duten euskal herrien izenak.



Z	O	K	M	E	N	I	N	D	E	M	U
S	U	B	U	T	Z	T	U	A	R	A	Z
A	B	E	R	U	E	X	L	A	I	M	O
A	H	I	L	G	M	O	S	B	E	I	Z
Z	O	D	A	N	U	K	I	R	U	L	A
U	N	A	E	R	T	R	I	O	S	E	P
A	T	A	O	R	R	A	D	N	O	K	O
E	Z	O	H	A	I	I	R	E	L	E	M
M	E	S	D	I	K	R	T	U	H	I	U
A	R	N	T	S	U	A	D	Z	O	T	S
I	O	G	U	Z	E	T	U	N	B	I	K
H	P	O	M	I	B	E	R	M	E	O	D
L	I	B	A	Z	U	G	O	Z	E	R	U
E	M	A	Z	A	K	E	K	U	B	A	R

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

A	K	V	I	D	V	•	V	S	I	V	•
•	V	R	R	V	I	D	N	I	•	O	L
V	I	R	•	V	•	U	R	O	K	•	•
I	R	A	H	V	•	V	D	V	A	N	K
S	H	•	N	I	N	T	I	P	L	A	•
O	L	O	K	I	L	K	•	N	O	J	•
A	K	•	V	R	A	U	D	V	•	N	•
I	G	I	E	T	V	A	R	A	•		•
N	E	N	G	U	R	E	G	A	R	A	•
•	S	•	P	•	I	•	V	•	A	•	•

HIZKI ZOPA

E	M	A	Z	A	K	E	K	U	B	A	R		
L	I	B	A	Z	U	R	U	•	G	U	•		
D	•	H	P	O	M	I	•	B	E	R	M	E	•
K	I	O	G	U	Z	E	T	U	N	B	I	K	
A	R	N	T	S	I	A	D	Z	•	U	•	•	
M	E	S	D	I	K	R	T	U	H	I	U	•	
E	Z	O	H	A	I	R	E	L	E	M	•	•	
K	O	•	V	A	D	N	•	V	A	R	•	•	
U	N	A	E	R	T	R	I	O	S	E	P	•	
Z	O	D	A	N	K	I	R	U	L	A	•	•	
A	H	I	L	G	M	O	S	B	E	I	Z	•	
A	B	E	R	U	E	X	L	A	I	M	O	•	
S	U	B	U	T	Z	T	U	A	R	A	Z	•	
Z	O	K	M	E	N	I	N	D	E	M	U	•	

||| ZEIN DA? |||||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Abenduak 20 (ostirala) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZEIN DEN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

||| UZTARRIAREN AZAROKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZEIN DA?



AITOR ZULAIKA, FUTBOL ENTRENATZAILEA



IRABAZLEA



Joxe Mari Goenaga Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 155. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Joxe Mari Goenaga, saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

Egin klik eta bisitatu gure denda birtuala

www.catandovino.com

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103



ELKARRIZKETA | Aitor Martinez (moda diseinatzailea)

“sariak jasotzeagatik enpresa desberdin gehiagoren begiak dituzu gainean”

Moda diseinu ikasketak bukatu berri ditu Aitor Martinezek (Azpeitia, 1988), Bartzelonako Felicidad Duce eskolan. Ikasketen bukaerako lan moduan INC bilduma osatu eta hiru sari jaso ditu azpeitiarrak. Orain "benetako lan mundua" ikusten ari da, Mango enpresako gizonaen saileko diseinu laguntzaile moduan.

INC kolekzioa osatu duzu ikasketak bukaerako proiekturako.

Gizonezkoentzako zortzi look osatu behar izan dituzte INC kolekzioan, uniformitatea, nortasuna eta kamuflaia gaiak ukituz.

Bilduma osatu, eta sariak bata bestearen atzetik...

Aurten, ikasketak amaierako proiektu moduan aurkeztutako lanak ezagutzera emateko, desfile bat antolatu du eskolak. Han bi sari eman zizkizaten: eskolako hirugarren saria eta *Fucking Young on line* atariaren gizonaen bildu-

ma onenaren saria. Hori dela-eta, Bartzelonako ModFad erakundeak nire bilduma aukeratu zuen, beste batzuen artean, 080 Barcelona Fashion Week-ean diseinatzaile berrien plataforman aurkezteko. Eta Bartzelonako modaren astean ere saria jaso nuen, epai-mahaiaren aipamen berezia. **Zer sentitu duzu sari horiek jasotzean?**



Ondo dago sariak jasotzea. Alde batetik egindako lana errekonozitzen dute, eta inguruan zure moduan dagoen jendea ezagutzen duzu. Beti da interesgarria bestelako ikuspegiak ikusi eta izatea.

Modaren munduan atea irekitzeko balio al dizute sari horiek?

Esperientzia polita izan da eta sariak jasotzeagatik enpresa desberdin gehiagoren begiak dituzu gainean.

Lan asko egin al duzu sari horiek jaso arteko bidean?

Sei hilabeteko lana izan da ikasketak bukaerako proiektua eta, egia esan, halako lan bat bakarrik egin behar duzunean, lan-karga handia da. Hainbat atal desberdin izan behar dituzte kontuan, eta dena epe motzean egin behar duzu. Bestalde, ikastaldi ona izan da halako zerbait egiteak erritmoa jartzera eta erabakiak hartzerik behartzen zaituelako.✘

EFEMERIDEAK

1584

Harriztatzea erabaki zen.

Azpeitiko kaleak eta enparantzak, Udalak eta herritarrek erdibana ordainduz.

1605

Alzega azpeitiarra. Izendatu zuten Venezuelako apezpiku.

Yucatango kontadore nagusia izan zen eta alarguntzean sartu zen frantziskotar. 1609an hil zen.

1717

Frantzisko Ibarrondorekin eskritura sinatu.

Azkoitian bizi zen, eta hurrengo bi urteetan herrian behar adina teila eta adreilu egin beharko zituen. Mila teila 63 erreal eta adreilu 50 erreal ordaindu zituzten.

✎ **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

||| **Egilea:** Imanol Elias Odriozola.

||| **Argitaratzailea:** Uztarria Kultur Koordinakundea.✘

uztarria.com

Azpeitiko ataye

- Eguneko albisteak - Herritarren iritzia - Komunitatea - Bideoak
- Inkestak - Agenda - Bitxikeriak - Uztarria aldizkari guztiak
- Uztarriaren produktu guztiak - Efemerideak
- Azpeitia atala: zerbitzu publikoen ordutegiak, telefono zenbakiak, festak, hauteskude-emitza guztiak, herriko taldeak...
- Gida komertziala: herriko denda guztien telefono eta helbideak

sartu eta parte hartu

Egunero 3.000 bisita inguru



Hazkuntza

Duela 50 urte, Jose Maria Busca Isusi jaunak azterketa bat egin zuen soldaduskara joan behar zuten mutilen altuerari buruz, eta batuz besteko garaiera handiagoa zegoen Gipuzkoan. Faktore eragingarri ugari egon daiteke, baina nire anatomia irakasleak elikadurari eman ohi zion lehentasuna eta, batez ere, haurtzaroan esne asko kontsumitzea.

Oro har, 18 urte arte irauten du hazkuntzak. Garaiera motzarekin baterakoak dira nanismoa, Down sindromea, elikadura eza, tiroide glandulen funtzio baxua, diabetesa eta hazkuntzarako hormona falta.

Harrigarria da egungo gazteen garaieraren hazkuntza. Baina ia horrek ez du gurasoen arreta pizten, baldin eta beste okarren bat ez badute sumatzen, adibidez, bizkarrezurraren desbideratzea.

Jigantismoa, berriz, tumore onbera batengatik, buruaren barruan dugun hipofisi glandularen adenomatik, sor daiteke, baina gaur egun, garaiz egin daiteke diagnostiko zehatza, egoera zuzentzeko. Puntu honetara heltzean ezin ahaztuko dugu Migel Joakin Elizegi Altzoko erraldoia. XIX. mende hasieran jaioa, 2,37 metroko garaiera zuen. Bizimodu aurrera ateratzeko zirkoan eta beste erakustaldietan azaldu beharra izan zuen.

Gizon ona eta apala omen zen, baina sufritzea tokatu zitzaion.*



Julian bereziartua

MAIALEN ORBEGOZO/AINARA URBINA trenaren museoko langileak



- 1. Zer eskaintzen duzue?** Trenaren historia eta lurrun trenean bidaia, 6 eurotan.
- 2. Bisitarien profila?** Ikastetxeak eta familiak.
- 3. Batez ere, nondarrak?** Gipuzkoatik eta Bizkaitik neguan; udan katalanak, madrildarrak eta frantsesak.
- 9. Bertakoak ere bai?** Gero eta gehiago. Umeek

propaganda egiten dute.

- 4. Zerk harritzen du gehien bisitaria?**

Trenean ibilaldia egiteak.

- 5. Zenbat erretzen du?**

15 kg. ikatz eta 80 l. ur, kmko. 1898ko lokomotora da.

- 9. Datu bereziren bat?**

1929ra arte, Donostia-Bilbo egiteko 5 ordu behar ziren; gaur 2 ordu, 40 minutu.

- 6. Platoa ere bada...**

Filmak, telesailak, iragarkiak, dokumentalak, bideoklipak... askotan grabatu dituzte.

- 7. Lanik gehiena noiz?**

Aste Santutik azarora.

- 8. Bitxikeriarik?**

Kanpotar askok galdetzen du 'topoa' zer ordutan den.

Ainitze Agirrezabala

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Lamaldiak:
943 15 16 40

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

lentzeria mertzeria

jose artetxe, 16

nabar

ORDULARI

Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44

Iuba
aholkularitza

Aholkularitza
tiketa
laborala
kontablea

Gestori lanak
Finkei administrazioak
Gestio inmobiliarioak

Tel: 943 157 329 Fax: 943 157 273
Euzkaleko kalea, 43 • Iuba.ez@postak.net

KIRURI

J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikastegia

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

Ez du etenik

Musikaria, langilea, kartzelako bisitaria, Baigerako gidaria, bakegilea, amona, ama, laguna, emaztea... hori guztia da Arregi, beti ere koherentzia gordez. 📌 Uztarrria

Etenik gabeko abestia. Horixe izan da, orain arte, Maria Jesus Arregi Uzin biziaren bizitza. 1945ean jaio zen, Azpeitian, eta bertan jarraitzen du, herriari eta herritarrei lotuta. Saltsa guztietako perrexila da emakumea. Musikarik gabe ezingo luke bizi, hala dio azpeitiarrak. Gorabehera handiko bizitza izan du Arregik: doinu goxoekin eta tristeekin, erritmo biziekin eta motelekin. Musikari oso lotuta egon da beti; eskolako abesbatzan hasi zen kantatzen, eta ordutik aurrera, ez da gelditu ere egin. Juan de Antxietan abestu ohi zuen, eta ondoren, Unai Hirukoa taldearekin, Euskal Herri osoko plazak eta dantzalekuak pasatu zituen. Maria Jesus, ordea, ez da musikagatik eta musikarentzat soilik bizi. Emakume honek mila aurpegi ditu, mila aurpegi eta bihotz handi bat.

Maria Jesus Arregirena Uzinena da Uztarrria Komunikazio Taldeak 2009. urteko martxoan abiarazi zuen liburuxka biografikoen bildumako hamargarren zenbakia. Julian Bereziartua medikuarena izan zen lehena, Leo Etxeberria sindikalista eta euskaltzalearena bigarrena, Valentina Agirre emaginarena hirugarrena, Santi Lazkano txirindulari ohiarena laugarrena, Amaia Garmendia gitarrista eta animalistarena bosgarrena, Enkarna Arregi mojarrena seigarrena, Iñaki Bergara Pio aktorearena zazpigarrena, Komando Autonomo Antikapitalistako kide Bernardo Aizpitarte *Kabraren* zortzigarrena eta Enrike

LIBURUXKA

DATUAK

Orrialdeak. 73.

Neurriak. 10 x 8 zentimetro.

Tirada. 1.200 ale.

Prezioa. 5 euro (Uztarrriaren bazkideek doan jasoko dute).

21. PRODUKTUA

Aurreko 19 liburuak. *Joxe Takolo, Angel Otaegi, Imanol Elias, Patxi Altuna, Azpeitiko efemerideak, Euskarazko prentsa eta Azpeitia, Azpeitiko mendi gida, Loiolarik ez balitz, Otsobeltz, Urrestillako musika taldeak, Azpeitiarrak Espainiako Gerran, Oroitarri, Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Xanti Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara 'Pio' eta Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza.*

CDa. *Urolaldeko bertso zaharrak.*

Zurutuza albaitari eta euskaltzalearena bederatzigarrena.

Uztarrria Komunikazio Taldearen liburuxka biografikoen ale berria Maria Jesus Arregiren bizitzako gorabehera eta pasarteekin osatu da. Protagonista gizarte-taldeei eta eragileei

oso lotutako emakumea da, nekazina. Ene-ritz Albizu kazetariak idatzi du, eta abenduaren 28an, 12:00etan, Sanagustin Kulturgunean aurkeztuko da. Ondorengo leerroetan aurrerapen txikia irakur dezakezue.

Abestiaren akordeak

1945eko uztailaren 19an jaio zen Maria Jesus Arregi Uzin, Azpeitian. Bonifacio Arregi loiolatarraren eta Justa Uzin azpeitiarraren alaba zaharrena da. Amaren arbasoak soinu-joleak ziren eta aitaren familiakoak, berriz, pandero joleak. Hortik omen datorkio "musikarako grina"; odolean ere badarama zaletasuna Arregik. Jenio biziko pertsona, baina erabat sentikorra da.

Eskolako abesbatzan abestu zuen lehen aldiz Maria Jesus: haiekin izan ziren bere lehen notak. Dena ez zen, ordea, musika eta alaitasuna ikasle garaietan. 16 urte egin zituenerako bideratu zuten Maria Jesus lan mundura haren gurasoek: kontabilitatea ikasi behar zuen, hori zen etorkizuna. Bere esku egon balitz, Arregik musika ikasiko zuen, zailtzarrik gabe.

Ikastetxea utzi zuenean, abesbatza ere amaitu zen Maria Jesusentzat. Hark, ordea, ez zion patuari amen egin, eta Coro de Cámara de Radio Popular de Loiola zeritzon taldean kantatzen hasi zen. Ondoren, 1967an, sortu berri zen Juan de Antxietaren abesbatzan hasi zen; koro hartatik irten zen Unai Hirukoa



Maria Jesus Arregi eta Andoni Albizuri *Katxo*, Ekaingo kobaren atarian.

musika taldea. Ordutik aurrera, dozenaka plazatan, antzetzokitan eta dantzalekutan abestu zuen hirukoak. Garai hartarako, berrietasuna zen hiru emakume gazte herriz herri abesten ibiltzea, eta, gainera, euskaraz.

Pare-pareko doinua

Musikak batu zituen Maria Jesus Arregi eta haren senarra, Andoni Albizuri *Katxo*. Juan de Antxieta etxean ezagutu ziren, Arregik abesbatzako entseguak izaten zituen, eta

Katxo, berriz, antzerkigintzako prestaketetan aritzen zen. Ezkondu eta hamaika urtera hil zen Andoni Albizuri, gaixotasun batengatik. Asko irakatsi zion senarrak Maria Jesusi; nolabait, abestia afinatzen lagundu zion. Gizon argia zen, bihotz onekoa eta interesgarria.

Hain zuzen, Andoni Albizurik eta Rafael Rezabalek aurkitu zuten Zestoako Ekain kobazuloa, 1969an. Bidean, senarra galdu zuen Arregik, baina adiskidea aurkitu zuen. Rezabalen oso laguna orain.

Lana, komunitatearentzat

Soldatapeko lana ez da izan, ordea, Arregiren eginbehar bakarra. Erretiroa hartu aurretik, baita jubilatu ondoren ere, izerdi asko bota du herritarren alde lanean.

“Itxaropenaren telefonoa” deritzon irabazi asmorik gabeko taldean lanean ibili zen. Ondoren, 1990ko hamarkadan kartzelara bisitak egiten hasi zen Azpeitiko, Azkoitiko eta Zestoako espeteratu politikoei eta sozialei.

Elkarri eta Lokarri taldeetan ere kolaboratzen du. Elkarrik talde bat izan zuen Azpeitian, hango kide zen Arregi, eta 1998-1999 urteetan Bake Foruma antolatu zuten herrian. Baigera elkarteko juntan egon zen, eta bi urtez, presidentea izan zen. Arregik berak aldatu zion taldeari izena; Aitonena ahantzi, eta, aho batez onartuta, Baigera bezala baitaiatu zuen elkartea.

Emakumeen rola ere aldarrikatu du herrian. Lehen emakumea izan zen Gure Ametsa elkartera sartzen; eta behin barruan, emakumeen talde bat sortu zuen danborradan irteteko.

Ez du herrian soilik erein hazia emakume honek. 2000. urtean boluntario gisa joan zen Asia hegoaldera. Elena Albizuri, koinata, Bangladeshen misiolaria da, hiritik urrun dagoen oihan batean bizi da, eta harengana joan zen.

Dena ez da lana. Festazalea da, bidaiak egitea gustuko du, eta haren eginkizunik gustukoena bilobak zaintzea da. Egunero egoten da haiekin. Arregi eginbeharrez eta arazoez ahazten da bilobekin dagoenean. Fisikoki asko nekatzen den arren, haiekin, haren buruak deskantsatu egiten du. Inongo arazorik gabe aitortzen du: hiru haur horiek gabe, ezin du egon.✳



TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	025401
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	853297
DYA-Donostia	464622

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erla Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00	BESTERIK	
EAJ	81 55 70	Xoxoteko aterpea	58 10 07
Sortu	15 72 00	Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzua	
EA	81 00 11		943 08 06 88

FARMAZIAK (ABENDUA)

EGUNEZ

1-4-12-13-18-23-25-30	2-10-16-21-22-26	3-9-14-15-20-27	5-11-17-24-28-29	6-7-8-19-31
Jacome (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 080258	943 815974	943 811949	943 811274	943 811350

GAUEZ

1-9-10-11-12-13-14-15-23-24-25-26-27-28-29	2-20-21-22-31
Beristain (Azpeitia).	Azpiazu (Azkoitia).
943 811949	943 852989

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Abenduaren 13an eta 23an
dute hitzordua, 18:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

Aralar	647 42 59 95
Hamaikabat	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	816380
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPO TXOKO** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



IZARRAITZ JOLASLEKUA.

Azpeitiko Udalak Izarraitz pilotalekua larunbat arratsaldetan jolasleku bezala irekiko du, azaroak 23an hasi eta martxoak 2ra, inauteriak bitartean. Ordutegia 16:30etik 20:00etara artekoa izango da.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarrria.com/azpeitia/
autobusak

3-4-7-8-16	5-17-18-30	6-19
Gisolsola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).
943 851235	943 851966	943 850660

VIOREL GHEORGHE KISS

Gerla, Errumania

“Bizitzeko Lekurik ederrena aurkitu dut”

Lanak eta bizitzan aldaketa bat emateko beharrak ekarri zuen Azpeitira. Erronka nagusia euskara ikastea du.  A. Agirrezabala

Nolatan etorri zinen hona?

Suerteza izan nuen. Nire bizitzan aldaketa baten beharra nuen. Errumanian lanean nengoen enpresak departamendu bat zuen Sorraluzen, eta hemen tornulariak behar zituztela-eta, dena atzean utzi eta bizitza berri bat hasteko asmoz etorri nintzen, beste hiru lagunekin, 2008an. Etorri eta bederatzi hilabetera, lanik gabe geratu eta Errumaniara itzuli ginen. Hilabetera, ordea, hemengo enpresariak deitu zidan, lana eskainiz.

Erraz egin al zara Azpeitira?

Bizitzeko lekurik ederrena aurkitu dut. Denetik du: itsasoa gertu, mendia... Ezin dut esan guztiek, baina gehienek Errumaniakoa naizela entzutean aurreiritziak dituzte, deskonfiantza. Gero, ezagutu ahala, irekitzen zarete.

Azpeititik zer duzu gustuko?

Euskal kulturaren tradizioa eta espiritua mantentzeko hainbat jende egindako lana. Gustuko ditut karnabalak, saninazioak...

Eta zer gustatzen zaizu gutxiene?

Dena gustatzen zait. Azpeitiko gizartea Gerlakoarekin alderatu eta hemengo gehiago gustatzen zait. Hemen jendeak badaki iden-

titate bat duela, herri bat dela; han, berriz, ez dago espiritu hori. Han nazionalitate-nahasketak handia dago –hungariarrak, errumaniarrak, ijitoak, armeniarak...– eta kulturak bartzuten dituen ezer ere ez dago. Hemen etorkizuna ezin esan ona denik; bada han ez dago etorkizunik.

Zer moduz euskara ikasten?

Nire lankide gehienak hemengoak dira, baina ez dute apenas euskaraz hitz egiten. Nik euskaraz agurtzen ditut eta haiek erderaz erantzuten didate eta hori ez zait ondo iruditzen. Pena da. Herrialde batean integratu nahi baduzu, oinarritzkoa bada ere ikasi egin behar da. Laz hasi nintzen euskara ikasten euskaltegian, baina aurren talderik ez da osatu. Zorte pixka batekin urtarrean ekingo diot berriz. Nire lankideen harrera ona eskertzeko euskaraz ondo ikastea espero dut. Ikus dezaten ez naizela horren desberdina.

Sorterritik zer botatzen duzu faltan?

Jaki tradizionalen bat, Sarmale: haragia eta arroza aza orrietan bilduta. Gainontzean... Han etxea badut eta urtean bitan joaten naiz, oporretan eta gabonetan.*




1

1. Guggenheim museo atarian. 2. 18. Korrikan lekukoa eramaten, Azpeitiko Euskara Patronatutik. 3. Zaragozan.

2.800 kilometrora dago Gerla.



2



3

Niñojexux

Diotte Josetxo zuela ume hark izena, 1949an lauhankan zebilen haur bat aurkitu zutela mendian larrugorri, eta 1935az gero gurasoek etxeko ukuiluan gordeta eduki zutela. Ttanttoa zuela, nonbait. Ukuilutik ateratzen zutela batzuetan, baina ez zela basoan animalien artean bizitzera iritsi. Ez zuela adinari zegokion buruargitasunik, bi urteko haur baten adimena zuela, ez zuela askoz gehiago adierazten, behintzat. Aurkitu zutenean, medikuarenera eraman eta "giza otsoa" zela erabaki zuen sendagileak, aldi berean mutiko haren gaitza "sendaezina" zela esanez.

Umeak igandeko mezarara joaten zirenean, korrika eta presaka ibilarazten zituzten familiak, lekurik onena harrapatzeko. Lekurik onena, bistan da, aurreko ilarak ziren, besterik ez, baina handik mutiko hura hurretik ikusteko modua zuten.

Diote Josetxok erabateko pertsona itxura zuela, nahiz eta begietan, zimurretan eta eskuetan bazuen zerbait berezi. Baina inork ez daki esaten zer zuen horietan berezi. Ez zekien hitz egiten, nonbait, eta beste inork ez bezala, bestela adierazten zituela gauzak. Jendeak jakin-minez begiratzen ziotela, haurrek batik bat...

Diote 1949 urtean ekarri zutela mutil hura miserikordiara. Ez zekien ia hitz egiten. Lanak zituen bere izena esateko ere. Batzuetan eskerrak ere ematen zituen. Hamalau urte zituela mendian jaso zutela kontatzen zuten, baina Josetxok berak inoiz ez zuen ezer kontatu. Hasieran, ipurdia bustia eramaten zuen, praktetan egiten zuelako txiza. Horrek ere ez zuen laguntzen gainerako neska-mutilak Josetxorengana hurreratzeko. Urteak igaro ziren, eta zerbait ikasten hasi omen zen. Koi-lara, sardexka eta aiztoa hartuta jaten omen zuen. Bere burua berak bakarrik jantzen ere ikasi omen zuen. Partxiseko taularen koloreak gustatzen zitzaizkion. Neska-mutilak horretan jolasten ikusten zituenean, haiengana



|||||||miel a. elustondo|||

|||Jendea Josetxo ezagutzen eta estimatzen hasi zenerako, zahartu egin zen hura, eta hil, 66 urte zituela

hurreratzekoa zen. Fitxak ahora eramateko joera zuen, baina ez gainerako haurrek ez omen zioten errieta handirik egiten horregatik. Haurrek beraiek ez bezalako bat ikusten zuten Josetxo. Ttanttoa igartzen, nonbait. Neska-mutil kokxorrek harekin hitz egin nahi izaten zuten, hau, hori eta hura esaten zizkion Josetxori, baina honek ez zuen erantzuten, ez zuen hizketan inoiz ikasi. Hala ere, keinu bidez komunikatzen zen hura, nahiz eta neska-mutikoek ez entenditu hark esan nahi ziena. Komunikatu nahia zuen, inondik ere, baina ezin batak bestea entenditu.

Diote garai hartako modako taldea entzutea gustatzen zitzaioela. Dúo Dinámico izenekoaren kantuak entzunarazi eta poztu egiten omen zen. Jendea Josetxo ezagutzen eta estimatzen hasi zenerako, zahartu egin zen hura, eta hil, 66 urte zituela. Askok negar egin omen zuen egun hartan Erreterian.

Diote, askok dio, inoiz ezagutzekotan, orduantxe ezagutu zutela inoizko niñojexux. Gure herrian ere izan direla halako eta bestelako niñojexuxak.*



English Courses

11-17 urte bitartekoentzat

DUBLIN

ETA

OXFORD^{EN}



- Astean 15 orduko tutoretza saioak nazionalitate ezberdinetako ikasle taldeetan
- Egonaldi eroso eta segurua familia batean
- Logela, nazionalitate ezberdineko beste ikasle batekin banatuz
- Familiarekin gosalduta eta afalduz
- Bazkari beroa ikastetxeko jantokian
- Eskolara joateko autobus zerbitzu pribatua egunero
- Arratsaldeetan eskolaz kanpoko ekintza astelehenetik ostiralera
- Irtenaldiak hirigunera
- Liburu eta ikas-materiala
- Ikastaro amaierako ziurtagiria

%10eko beherapena
izango duzue 2013ko
abenduarien 20a baino
lehen izena ematen
duzuenok.

Harremanetarako: Tony 685 209 875 - phlaaps@yahoo.com

ukabi
informatika

zbitt



Gabon hauetan ere, zurekin





innovadental

hartz-klinika
AZPEITIA



ORTODONTZIAN

adituak



Merkatuan dauden teknika aurreratuenekin haurren eta helduen hartz posizioa zuzentzen dugu.

16 urte bitarteko umeentzat, kontsultatu gure deskontuak enpaste, endodontzia, radiografia eta garbiketetan.

innovadental

Bisita gaitzazu:

José de Artetxe kalea, 5
(ambulatorioaren ondoan)
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Edo deitu:

943 02 59 55

*Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*